

Gizarte-mobilizazioak eta frankismoaren hondar krisia. Euskal Herriaren ekarpena

Daniel Escribano eta Pau Casanellas*

Soziologian lizentziaduna, * Historian doktorea (UAB Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko CEFID Frankismo eta Demokrazia Garaiei buruzko Ikerketa Zentroko kidea)

1977an Espainiako demokrazia parlamentarioa ezartzea ekarri zuen aldaketa politikoaren prozesuari buruzko historiagintza garatu arau, zera agertu da gero eta argiago: Arias Navarro presidente bilakatu zenetik frankismoaren baitan gorpuztuz joan ziren erreforma-programek porrot egitearen eragile nagusia mobilizazio soziopolitikoak izan zela. Prozesu hori du aztergai artikulu honek, Euskal Herriatik begiraturik, eta ondokoa du oinarri: hein handi batean ezezagunak diren hainbat dokumentu, hala gobernuarenak nola oposizioarenak.

GAKO-HITZAK: Aldaketa politikoa · Lan-gatazka · Gizarte-mobilizazioak · Euskal Herria.

Social protest and final crisis of Francoism. The Basque contribution

As the studies on the history on the process of political change that led to the achievement of parliamentary democracy in Spain in 1977 has developed, the sociopolitical mobilization has emerged as a key factor of the failure of reformist projects that began to take shape within the Franco regime after Arias Navarro was nominated president. Based on an extensive and largely unpublished set of documents, both governmental and from the opposition, the article portrays this process from the perspective of the Basque Country.

KEY WORDS: Political change · Labour conflicts · Social mobilization · Basque Country.

Jasotze-data: 2011-12-12. *Onartze-data:* 2012-03-15.

Espainiako demokrazia parlamentarioa ekarri zuen aldaketa politikoaren prozesuari buruzko ikerketak ezagutza- eta sakontze-maila handia erdietsi du hondar urteotan. Izan ere, aitzinetik eginiko ikerketaren babesik eta, batik bat, dokumentazio-oinarririk gabeko ikuspegi orokorrek ardazturiko hasierako fasea gainditu egin da. Jauzi hori kopuruz zein kalitatez egin da, lan anitz plazaratu direlako, eta, kasu batzuetan, ikuspegi iradokitzaileak ekarri direlako. Horri esker, Espainiako historiako aro berri xamar horren narrazioa luzaz itxuragabetu duten ideiak bertan beheiti geratu dira. Hala nola erakunde parlamentarioak ezartzeko eta egonkortzeko erregeak eta politikari guti batzuek eginkizun erabakigarria izan zutela; aldaketa politikoa aldaketa sozioekonomikoen eta horien ondorioz moldakorra omen zen «erdi-mailako klasea» agertu izanaren nahitaezko ondorioa izan zela; edota oposizioa ahula zela eta prozesuan bigarren mailako eragina izan zuela¹. Kontaketa horretan, sistema politikoa demokratizatzeko baketsua izan omen zen bideko oztopotzat aurkeztu zituzten antifrankismoaren «ibilaldi luzea» eta, batez ere, 1976ko mobilizazioen ugaritzea. Hau da, aldaketa ahalbidetu zutenak —aldeztan zituzten agertokiak egungo marko parlamentariotik urrun baziren ere—, aldaketaren oztopotzaile bihurtu zituzten, Mefistofelesen erara.

Gaur egun, ordea, hondar urteotan finkatu den interpretazio-markoa hartu behar du kontuan aro horri buruzko ekarpen orok. Marko horrek zera nabarmendu du: gizarte-mobilizazioak frankismoaren krisiaren eragile erabakigarria izan zirela, eta, azken batean, Franco hil ostean diktadura betikotzea eragotzi zutela². Ikuspegi horretatik, epe luzeko prozesua agertzen zaigu aldaketa politikoa, 1960ko hamarraldiaren hasieran sortzen hasi zena, mobilizazio antifrankistak antolatzea-rekin batera. Gobernu-dokumentazioan bertan egiazta daitekeen bezala, agintariak beldur ziren ez ote ziren egoeraren kontrola galtzen ari, eta erregimenaren barne-zatiketen jatorrian oposizioaren jarduera funtsezko eragilea izan zen, hamarraldiaren amaieran bertan nabarmena zen hondar krisia lastertuz. Mobiliza-

1. Kazetaritza- zein iritzi-emaileen adierazpenak goiti-beheiti, erranguratsua da zer ikuspegi-aldaketa egin duten akademia-arloko egile ospetsu batzuek, frankismoaren krisialdiari eta demokrazia parlamentarioaren finkatzeari buruzko historiagintza garatu arau. Horren adibide garbia dugu Santos Juliá. Betiere *hausnarketa historiko dokumentatu* deitzen ahal dugun eremuan kokaturik —ez aitzinetik buruturiko ikerlanean oinarriturik—, halako determinismo ekonomikoa (hala nola Juliá, 1990, II: 147-159 testuari dariona) baztertu du Juliák, 1990eko hamarralditik langile-mugimenduaren historiagintzak agertu duen interpretazio-markora hurbilduz (ikus Juliá, 2006: 59-79). Antzeko zerbait gertatu da Javier Tusellek idatziriko testuekin. Lehendabiziko lanetan, dibulgaziozkoak zirenetan (Tusell, 1991), erregimen batetik bertara eraman zuen «ingeniaritza politiko» prozesuan aktore zehatzek (hala nola monarkiak edo gobernuak) zer eginkizun garrantzitsu izan zuten nabarmendu zuen Tusellek. Carlos Arias Navarro presidente aritu zen garaiari buruz G. Queipo de Llanorekin batera taxututako ikerketa dokumentatuan (2003), aldiz, erreformismo frankista higitzeko eta erregimenari zilegitasuna kentzeko gizarte-mugimendu antifrankistek berebiziko garrantzia izan zutela ohartarazi du. Horren guztiaren argitan, oinarri empirikorik gabeko espekulazio huts bilakatu dira politologiatik mahairaturiko planteamendu batzuk, hala nola Josep M. Colomerrenak (1988). Gerla Zibilaren oroitzapena zela-eta, indarkeriazko borrokari uko egitetzat eta elite politikoen arteko ituntzat aurkeztu zuen Colomerrek trantsiziorako «Espainiako eredu». Azkenik, oposizioa ahula zen tesia modurik serioenean argudiatu duten egileen artean, Álvaro Soto Carmonaren lana (2005) aipatzen ahal dugu. Hala ere, lan horretan ez dago oposizioaren jardunari buruzko gobernu-iturririk. Gaur egun, halako dokumentazio ugari argitaratu denez, Sotoren lana gaindituztat eman daiteke, horri dagokionez.

2. Ñabardura ezberdinekin eta bat ez datozen kronologia-eremuak abiapuntu harturik, hona hemen ikuspegi horretan sartzen diren zenbait lan: Balfour (1989), Molinero eta Ysàs (1998), Pérez (2001), Domènech (2002), Ysàs (2004), Sartorius eta Sabio (2007), Gallego (2008), eta Domènech (2012).

zioak antolatzen nolako garrantzia izan zuten aintzat harturik, 1950eko hamarraldiaren erdialdera antifrankismoaren baitan gertaturiko aldaketak aipatu beharrekoak dira, gerlaoste tenoreak berezkoak zituen *erresistentzia-estrategiak* direlakoetatik ondokora igarorik: *oposizio-estrategietara*, hau da, gizarte-mugimenduei dagokien jendaurreko ekinbidea ardatz duten *estrategietara*³. Beraz, interpretazio-marko horrekin eztabaidatu behar dute ekarpen berriek, hura osatuz, zehaztuz, eta haren alde okerrak baztertuz, kontsulta daitekeen dokumentazioak eta beronek ahalbidetzen dituen interpretazioek hala eskatzen dutenean.

Elkartasuna erdietsi

Diktaduraren historian zehar elite frankistak izan zuen kezka nagusietako bat erregimena erakundetzea izan zen, Franco desagertu ostean haren obrak iraute aldera. 1950eko hamarraldiaren erdialdera hasiriko «garapen politiko» prozesuak honako mugarri hauek izan zituen: estatuburuaren eta gobernuburuaren funtzioak bereiztea, urtarrilaren 10eko 1/1967 Estatuaren Lege Organikoan aurreikusirik; Borboiko Joan Karlos Francoren ondorengo izendatzea, errege gisa, 1969ko uztailan; eta Luis Carrero Blanco, 1967tik presidenteorde ari zena, presidente izendatzea, 1973ko ekainean.

Hala ere, 1973ko abenduaren 20an hil egin zen Carrero, ETA(V.a) Euskadi Ta Askatasuna (V. Asanblada)k prestaturiko atentatua zela-eta. Horrek sorturiko krisi politikoak ondokoa nabarmendu zuen: gizartean erakunde frankistak gero eta kolokago zeudela, ez zegoela erregimeneko elitea batzen zuen egitasmo politikorik. Egoera horri erantzuna emate aldera, Carrero hil ostean eraturiko gobernuak, Carlos Arias Navarro presidente zuenak, parte-hartze bideak zabaltzea ahalbidetzeko erreforma-programa garatzeko borondatea agertu zuen, betiere erakunde frankisten markoaren baitan. Dena den, 1974ko otsailaren 12an zabaltze-programa iragartzearekin batera hasi zen aroan mobilizazio soziopolitikoek goiti egin zuten, batik bat Euskal Herrian, bata bertzearen ondotik etorri ziren gobernuak euren egitasmoak arrakastaz burutzea galaraziz⁴. Bertze leku batzuetan (hala nola Vallès edota Baix Llobregat Kataluniako eskualdeetan) gertatuko zen antzera, lan-gatazkek, protestaren eragile nagusia zirenek, elkartasuna lanpostutik harago hedatzea eta finkatzea izan zuten ezaugarriak behinena. Euskal Herrian, gainera, lan-gatazka anitzek zera ekarri zuten: nazio-aldarrikapenaren eduki sakona, eta erregimenaren erakundeak auzitan jartzen zituzten jarrerak, Espainiako esparruan nagusi zen antifrankismoaren ohiko leloetatik harago zihoazenak. Hori dela-eta, Euskal Herriko lan-gatazkek kezka berezia izan ziren erregimeneko agintariendako, ETA(V.a)ren jarduerarekin batera. Horrenbertzez, aldaketa bultzatu zuten eragile nagusietakoak izan ziren Euskal Herriko mobilizazioak, garai batean diktadurak erdietsi zuen onespina higitzeko sekulako eragina izan zutelako. 1970eko hamarraldiaren erdialdera hain zen nabarmena prozesu hori, ezen

3. Ildo horretan doazen bi ikuspegi iradokitzaile, ikasle-mugimendua eta langile-mugimendua, hurrenez hurren, jorratu dituztenak, in Rodríguez Tejada (2009) eta Domènech (2008).

4. Franco bizi izan zen bi hondar urteetan, OSE Espainiako Erakunde Sindikalak eta Lan Ministerioak zenbatzen zituzten lan egin gabeko oren zifrak nehoiz baino handiagoak izan ziren (Molinero eta Ysàs, 1998: 96).

legitimazio oro galdua baitzuen erregimenak, euskal gizartearen sektore zabalen begietan.

1974. urtea atzeraldi-egoeran hasi zuen langile-mugimenduak, honako bi faktore hauek eraginik: Carreroren aurkako atentatuak, eta soldata-negoiaziorako 1973ko azaroaren 30ean Ministroen Kontseiluak ezarritako blokeoak, zeinak lan-hitzarmen kolektiboen bidezko soldata-igoeren muga inflazioari buruzko kopuru ofizialera murriztu zuen. Soldata-aldarrikapen soilen aldeko grebak eraginkor izatea eragotzi zuen horrek. Horrez gain, 1973ko azarotik PCE Euskadiko Alderdi Komunista, PSOE Espainiako Langileen Alderdi Sozialista, EAJ Euzko Alderdi Jeltzalea eta UGT Langileen Batasun Orokorra zera ari ziren prestatzen: zapalkuntzaren aurkako eta libertate publikoen aldeko greba orokorra, 1974ko urtarri-laren 15ean egitekoa zena. Gubernuko presidentearen aurkako ekintzak Euskal Herrian izan zuen ondorioetako bat honakoa izan zen: antolatzaileek deialdia bertan beheiti uztea. Alta, Gipuzkoako Gobernu Zibilak berak ohartarazi bezala, «gobernu berriak bere ekinbideak hasi bezain fite, subertsioaren jardueren goraldi orokorra nabaritu zen, era progresiboan eta ia tai gabe igotzeari utzi ez ziona»⁵. 1974ko lehen seihilekoan jazoriko gatazkarik nabarmenen artean, Tolosako eta Iruurako (Gipuzkoa) zenbait enpresatan eginiko grebak aipatu behar ditugu. Eskualdeko lantegi nagusietako ordezkariak errebindikazio-taula intersektoriala prestatu zuten, eta maiatzaren hondarlean lanuzteak hasi ziren. Auzia uztailaren hasieran amaitu zen, gatazkan zehar egotziriko langileak berriz harturik eta Winklerreko langileek, auziko lehendabiziko lanuzteak egin zituztenek, soldata-igoerak erdietsirik. Gatazka konpondu aitzin, elkartasun-greba egin zuten Tolosan, ekainaren 11n eta 12an, eta Talleres Emuako gerente eta akzio-gehiengodunaren etxebizitzari sua eman zion ETA(V.)eko Fronte Militarreko talde batek, hilaren 27an. Kaleraturiko langile gehien zituen enpresa zen Talleres Emua.

Garai berean, Authi Automóviles de Turismo Hispano-Ingleses enpresak Landabenen (Nafarroa) zuen lantegiko langileak ere ari ziren borrokan. Hitzarmen kolektiboa berritzeko negoziazio-prozesua zela-eta, soldata- eta elkartasun-aldarrikapenak uztartu egin ziren. Izan ere, gatazkan garrantzi handia izan zuen honako eskaera honek: eskualdeko bertze enpresa batean greban ari ziren langileekin elkartasunez eta 1001/72 auziaren aurka 1973ko hondarlean egin zituzten lanuzteengatik egotziriko hiru langileak berriz hartzeko eskaerak. Maiatzaren 27an, itxialdia hasi zuten lantegian 1.200 bat langilek, eta, biharamunean, polizia joanarazi egin zituen. Harrezkero, grebalariek Iruñeko elizetan asanbladak egiteak eta Polizia Armatuak Katedralean indarrez sartzeak Elizako eta gubernuko agintarien arteko tirabirak eragin zituzten. Ekainaren bigarren astean, Iruñerriko langileen inguruneetan soldata-igoerak eskatzeko deia zabaldu zuten, Authin eta apirilaren hondarretik Venancio Villanueva enpresan gatazkan ari ziren langileekiko elkartasun-greba orokorrari bide emate aldera. 1973ko ekainean Motor Ibéricak Noainen (Nafarroa) zuen lantegiko langileekin elkartasunez bederatzi egunez luzatu zen greba orokorrak zentzaturik, soldata-igoera automatikoak eman

5. Gobierno Civil de Guipúzcoa, «Memoria de la provincia correspondiente al año 1974», 1975, GC Gobierno Civil: 3679. k., AHPG Archivo Histórico Provincial de Gipuzkoa / Gipuzkoako Probintzia Artxibo Historikoa.

zituzten Iruñerriko enpresa nagusietako zuzendariek. Hilaren 15erako CCOOeko Herrialdeko Koordinakundeak deituriko greba orokorrak oihartzun ttipia izan bazuen ere, agintari frankistak beldur ziren San Fermin jaialdia errebindikazio-ekintzetarako agertoki bihurtzeko. Hori zela-eta, Authiko zuzendaritza estutu zuten grebalariekiko akordioa egin zezan. Azkenean, Enpresako Epaimahaiak hitzarmen iragankorra izenpetu zuen, ondokoa jaso zuena: soldata-igoerak, zati bat langile guztiendako kopuru berekoa (eskaera hori ohikoa zen garaiko errebindikazio-tauletan), eta abenduko lanuzteengatik kaleraturiko hiru langileak bertze enpresa batzuek kontratatzen ahalegintzeko engaiamendua⁶.

1974ko abenduko borroka-egunak Euskal Herriko mobilizazioen kalitate-jauzia izan ziren, bai mobilizatu ziren lagun kopurua nehoiz baino handiagoa izan zelako, baita erasora jotzeko deialdiak izan zirelako ere, ez baitzituen ezein errepresio-ekintza konkretuk eragin. Agorrilaren 9an, 1973ko azaroaren 30ean ezarritako soldata-mugak kendu egin zituen Ministroen Kontseiluak, neurria indarrean sartu eta gero berritzekoak ziren hitzarmenentarako. Horrek areagotu egin zituen lan-mobilizazioak. Izan ere, greba estrategia bideragarria suertatzen zen berriz soldata-igoerak erdieste aldera, enpresa-zuzendariek ezin baitzieten jadanik legezko mugei heldu igoerak murrizteko. Mobilizaziorik handiena abenduaren 11ko greba orokorra izan zen, CCOOeko Nafarroako Herrialdeko Koordinakundeak eta Gipuzkoako koordinakunde gehiengodunak deiturik, Eskuinaldeko (Bizkaia) batzordeen atxikimendua zuela. Euskal Herriko antifrankismoaren baitako indar-harremanari dagokionez, zera ohartarazi behar dugu: batzorde horietan guztietan ezker erradikaleko taldeak —ORT Langileen Erakunde Iraultzailea, MCE Espainiako Mugimendu Komunista, eta ETA(VI.a)-LCR Euskadi Ta Askatasuna (VI. Asanblada) - Liga Komunista Iraultzailea— zirela nagusi, eta PCEk kontrolaturiko koordinakunde abenduaren 11ko deialdiaren aurka agertu zela⁷. Azaroaren 24an preso politikoek hasiriko gose-grebarekin eta, herrialderen eta eskualderen batean, errebindikazio-borroken dinamikarekin berarekin uztartu zen abenduaren 11ko borroka-eguna. Ordura arte ezein protestatan parte hartu ez zuten sektoreak ere lotu zitzaizkion grebari. Zenbait udalerritan erabatekoak izan ziren denda-ixteak nahiz udal-azokei eginiko boikotak ditugu horren lekuko. Gipuzkoako Gobernu Zibilak berak aitortu zuen borroka-eguna «arrakastatsua» izan zela⁸. 1947an Bizkaian eginiko greba orokorretik, ekonomian zein errepresioan jatorri zehatzik ez zuen horixe izan zen, menturaz, Espainiako Estatuko herrialderen

6. ELA-STB, «Grève Authi», 1974-07-04, LBF Lazkaoko Beneditarren Fundazioa, ELA, katalogatzeko bidean.

7. «Las luchas de octubre-noviembre. Una declaración de la C.O. Nacional de Euskadi», *Mundo Obrero*, 22. zk., 1974-12-10, 5. or.

8. Gobierno Civil de Guipúzcoa, «Memoria de la provincia...», aip. dok. Bilboko (Bizkaia) Poliziaren Bulego Nagusiaren barne-dokumentazioaren arabera, hilaren 11ko deialdiak honako oihartzun hau izan zuen: 76.646 langilek egin zuten greba Gipuzkoan (herrialdeko lan-errodaren heren bat inguruk); 32.000k, Bizkaian (lan-errodaren % 10ek baino izpi bat gehiagok); eta Nafarroako 44 enpresatan lanuzteak egin zituzten. BIR *Boletín Informativo Regional*, 2447. zk., 1974-12-14, AGCV Archivo del Gobierno Civil de Vizcaya. Espainiako legezko hedabideek datu hagitzez handiagoak eskaini zituzten, Euskal Herri osoan protestarekin bat etorri ziren langile kopurua 200.000 inguruan jarriz. Ikus Ander Landaburu, «La huelga de los 200.000», *Cambio* 16, 162. zk., 1974-12-23, 24.-25. or. Landaburuk zera ohartarazi zuen: «Behin eta berriz minoritario deritzeten talde klandestinoak hainbertze milaka lagun mugiarazteko gai izateak» harritu zituela «zenbait berriemaile».

batean oihartzuna jaso zuen lehendabiziko greba-deialdia. Izan ere, deialdiaren leloetan, bertzeak bertze, honako aldarrikapen hauek baziren: amnistia emateko, «indar zapaltzaileak» eta auzitegi bereziak deuseztatzeko, errepresio frankistarengatik zigor-erantzukizunak garbitzeko, eta Espainiako Erresumako estaturik gabeko nazioendako autodeterminazio-eskubidea onartzeko. Horregatik guztiagatik, erregimenari botariko erronka ageria zen, aitzineko hilabeteetan gogortzen eta hedatzen ari ziren lan-mobilizazioak burutzen zituena.

Abenduaren 11ko grebaren babesean, lan-protestek jarraitu egin zuten eremu batzuetan. Nafarroan, azaroaren erdialdetik CCOOeko Herrialdeko Koordinakundeak prestatutako taula intersektorialaren alde ari ziren borrokan enpresa handietan eta, zenbaitetan, hala jarraitu zuten abenduaren 11ren ondotik. Gatazkarik garrantzitsuena Potasas de Navarrakoa izan zen, herrialdeko enpresarik handiena eta INI Industria Institutu Nazionalarena zena. Hango langileekiko elkartasunez greba orokorra egin zuten Iruñerrian, 1975eko urtarrilaren 15etik 21era bitartean. Alta, Ministroen Kontseiluak zuzenean hartu zuen esku auzian, langileen aldeko konponbidea ematea eragotziz, protestak hainbat enpresatako 250 bat langile egotzirik amaitu baitziren. Halako bukaerak indarge utzi zuen Nafarroako langilemugimendua urteko gainerako hilabeteetan⁹. Gipuzkoan, abenduaren 11ren ostean langileek eutsiriko protesta Tolosan luzatu zen gehien, maiatzean hasiriko gatazkari berriro heltzeko lagungarri gertatu baitzen borroka-eguna, baita lan-aldarrikapen eta lan-eremutik harago zihoazen aldarrikapen berriak plazaratzeko ere. 1975eko otsailera arte luzatu zen Tolosako gatazka, eta % 15erainoko soldata-igoerak onaturik eta auzian zehar kaleraturiko langile guztiak (900 inguru, gatazkaren aldirik gordinenean) berriz harturik amaitu zen¹⁰. Otsailaren 20an, Víctor Manuel Pérez Elexpe PTE Lanaren Espainiako Alderdiko kidea guardia zibilak tiroz hil eta hilabetera, jarraipen urria jaso zuen greba orokorra antolatu zuten Bizkaian.

Gero eta agerikoago zen erregimenak Euskal Herrian jasaten zuen jazarpena ez zela erantzunik gabe geratuko. Lehenik eta behin, apirilaren 4an, soldata-igoera mugei buruzko bertze dekretu bat ezarri zuen Ministroen Kontseiluak. Dekretuaren arabera, urtea amaitu aitzin indarrean sartuko ziren hitzarmenetan jasoriko soldata-igoerek hiru puntuz, gehienez, gaintzuten ahalko zuten aitzineko 12 hilabeteetako inflazioari buruzko zifra ofiziala. Gainera, % 3 hori produktuaren salneurrian jasanarazi ezean eta ministerio arteko batzordeak txostena emanik baizik ez zuten baimenduko. Horrez gain, soldata-igoera mugei buruzko 1973ko dekretuan ez bezala, igoerak kalkulatzeko zera zehaztu zuten arau berrian: oinarria hondar hitzarmenean ezarritako soldata izanen zela, eta ez hitzarmena bertze tenorean *de facto* jasorikoa. Hondar hitzarmena izenpetu ostean soldata-igoerak erdietsi zituzten langileen soldata nominala bera murriztea ekartzen ahal zuen horrek. Bigarrenik, apirilaren 25ean, ETA(pm) Euskadi Ta Askatasuna (politiko-militarra)k polizia-inspektore bat hil izana estakuru harturik, Ministroen Kontseiluak salbuespen-egoera ezarri zuen Gipuzkoan eta Bizkaian, hiru hilabe-

9. Gobierno Civil de Navarra, «Memoria correspondiente al año 1975», 1976, Interior, Ministerio del Interior, Secretaría General Técnica: 32/11451 k., AGA Archivo General de la Administración.

10. Ikus Aibar (1981, II: 263-265), eta Diócesis de San Sebastián, «Informe de las huelgas de diciembre en la provincia de Guipúzcoa», 1975-03-26, LBF, Eliza, katalogatzeko bidean.

tez. Hala ere, ez zen ustekabea izan Burgosko kapitaintzako fiskalak biharamunean eskatzea heriotza-zigorra ezartzeko José Antonio Garmendiari eta Ángel Otaegiri, 1974ko apirilean Gregorio Posadas guardia zibila hiltzea egotzirik. Hurrengo hilabeteetan, auzipetuen izenak diktaduraren aurkako borrokaren ikur bilakatuko ziren, Euskal Herrian, batez ere. Soldata-mugei buruzko dekretu berriak eta, batik bat, salbuespen-egoerak iraun bitartean, polizia nonahi zabaltzeak eta berau basakeriaz aritzeak aitzineko hilabeteetan Gipuzkoan eta Bizkaian langile-mugimenduak erdietsia zuen indarra ahuldu egin zuten¹¹, baina ezin izan zituzten protestak isilarazi. Aurreikusiriko gerla-kontseiluen aurkako protestek hartu zuten orduan mobilizazioaren lekukoa. Salbuespen-egoera pean ere, Garmendia, Otaegi, Eva Forest eta Carreroren eta Rolando kafetegiauren aurkako atentatuen-gatik auzipeturik zeuden gainerako lagunak askatzeko eskatzeko eta zapal-kuntzaren aurka egiteko mobilizazioak bata bertzearen gibeletik etorri ziren. Ekainaren 11n, errepresioaren aurkako borroka-egunak jarraipen handi xamarra jaso zuen, Gipuzkoan batez ere¹². Eta, uztailen, Pilar Careaga Bilboko alka-tearen aurka auzokideek eginiko kanpaina luzearen ondoren, horrek dimisioa eman zuen. Udal frankisten kontra Euskal Herriko auzokideen mugimenduak zera-man borrokaren mugarri izan zen hori.

Salbuespen-egoera kendurik, talde matxinoek areagotu egin zituzten atentatu mortalak. Gobernuak, berriz, ondokoa behar zuen: gerla-kontseiluak egitea karrikako egoera gobernaezin bihurtu gabe. Horrek guztiak zera ekarri zuen: ekainaren 24ko Gorteetako osoko bilkuran «komunismoak gure herriari bota dion erronkari» buru egiteko Ariasek iragarritako legezko neurriak¹³ dekretu bidez ateratzea, agorrilaren 22an Ministroen Kontseiluak eginiko bilkuran. Arauaren xedeei dagokienez, biziki erranguratsua da VI. Eskualde Militarreko Kapitaintza Jeneralak biharamunean ematea ezagutzera Garmendiaren eta Otaegiren aurkako epaiketaren data (hilaren 28a). 1970eko abenduan Burgosko auziaren kariaz egin bezala, oinarrizko eskubideak bertan beheiti utzi beharrean zegoen diktadura, euskal ekintzaileen kontra heriotza-zigor eskaerak zituen gerla-kontseilua egitea ahalbidetzeko. Terrorismoa saihesteko agorrilaren 26ko 10/1975 Lege Dekretuak bi urtez utzi zituen bertan beheiti gehieneko atxiloaldiari buruzko eta bizilekuaren bortxaezintasunerako bermeak. Apirilaren hondarretik Gipuzkoan eta Bizkaian bizi zen salbuespen-egoera Estatuko herrialde orotara zabaltzea erran nahi zuen horrek. Horrenbertez, baita zabaltze-programari berari uko egitea ere. Baina baldintza horietan ere ezin izan zituen erregimenak protestak desager-rrarazi. Garmendia eta Otaegi askatzearen alde «gainezka zegoen» kanpainak bere horretan zirauen Euskal Herrian Dekretua onetsi baino astebete lehenago. Poliziako berriemaileek zera nabarmentzen zuten hori bezain «kezkarri»: intelektualek, abokatuek eta pertsona ezagunek fiskalak eskaturiko heriotza-

11. Oposizioaren kalkuluen arabera, 4.000 bat lagun atxilotu zituzten salbuespen-egoera peko hiru hilabeteetan, eta zazpi lagun hil ziren poliziaren ekintzen ondorioz. Horietako bati baino ez zioten jarduera politikoa leporatu. Ikus Noticias del País Vasco (1975: 27-92).

12. Oposizioaren datuen arabera, 50.000tik 60.000ra bitarteko langile lotu zitzaizkion deialdiari herrialde horretan, baina gainerakoetan nabarmen ttipiagoa izan zen grebak jasoriko oihartzuna (Noticias del País Vasco, 1975: 143-147).

13. *Boletín Oficial de las Cortes Españolas*, X. legegintza, *Diario de las Sesiones del Pleno*, 18. zk., 1975-06-24, 9. or.

zigorren aurkako jarrera agertzea, eta hainbat herritako besta nagusien kontrako boikotak¹⁴. Egoera hori areagotu egin zen epaiketa noiz hasiko zen zabaldu bezain fite. Eta, are garrantzitsuagoa zena: engoitik ez ziren kaleraturiko langileekiko edota eskualdeko enpresetan greban ari ziren langileekiko elkartasun-mobilizazio soilak. Aitzitik, talde armatuko kide izatea eta atentatu mortaletan erantzukizuna izatea leporaturik, jurisdikzio militarren bidezko epaiketen aurkako mobilizazioak ziren. Protesta horiek goiti joan ziren ETako eta FRAP Fronte Iraultzaile Antifaxista eta Abertzaleko hainbat kideri heriotza-zigorra ezarria ziotela jakin arau, «bata bertzearen gibeletik hiltzera zigortu zituztenek nola zuten izena ia ahan-tziz»¹⁵. Izan ere, agorrilaren 28tik irailaren 3ra bitartean, greba orokorreko egoeran bizi izan zen Gipuzkoa ia etenik gabe, Euskal Herriko gainerako herrialdeetan lanuzteren bat bazela. Aitzinago ere gertatu bezala, industriaguneetatik harago joan ziren protestak; hainbat herritan saltokiak ixtea lekuko. Horrekin batera, plaza hartzeko apustua finkatzen ari zen, gobernuak ordena publikoa atxikitzeko ahale-gin latza egin arren, agorrilaren 31n, Donostian (Gipuzkoa), Jesús García Ripalda MCEko kidea kalez jantziriko poliziek tiroz hiltzeak egiaztatu bezala. «Borroka karrikara eramatean» zetzan koska, hau da, «karrika poliziar kentzean»¹⁶. Gar-mendiari eta Otaegiri ezarriko heriotza-zigorrei buruz Ministroen Kontseiluak erabakitzea aurreikusten zen dataekin bat etorritik, greba orokorrera deitu zuten berriz Euskal Herrian, irailaren 11rako eta 12rako, modu bateratuan. Agorrileko eta iraileko gerla-kontseilu guztietan hiltzera zigorturiko 11 lagunetatik bortz fusilatu ostean, lanuzteak egin zituzten berriz: fusilatu zituzten egun berean (irailaren 27an), oihartzun urria izan zutenak, eta hilaren 29an eta 30ean, jarraipen zabala jaso zutenak¹⁷.

Fusilatzeak zirela-eta, Mendebaldeko herrialde gehienetako enbaxadoreek aldi batez alde egitea Euskal Herriko grebak baino larriagoa izan zen erregimenaren-dako, berehalako epean, bederen. Hala ere, Euskal Herrian erdietsiriko kontzient-zia politiko eta mobilizazio-maila Espainiako bizitza politikoaren funtsezko eragile bilakatuko zen hurrengo hilabeteetan. Euskal Herriaren ekarpena kontuan hartu gabe, nekez uler daiteke protesta bertze herrialde batzuetara hedatzea, eta, Fran-co hil ostean, erregimeneko eliteak frankismoaren legediari eta erakundeei eusteari uko egitea.

Karrika irabazi

Francoren ondorengoek Arias Navarro presidente berretsirik, horrek gobernu berria eratu zuen, 1975eko abenduan, eta gizarte-protesten gorakada handiari buru egin behar izan zion. Bereziki 1976ko lehendabiziko hiru hilabeteetan, sekulako tamaina hartu zuten lan-gatazkek, Euskal Herrian, Madrilen eta Bartzelonako

14. BIR, 1874. zk., 1975-08-23, AGCV.

15. Pablo Harri [Luciano Rincónen goitizena], «Crónicas prenecológicas de un régimen», *Cuadernos de Ruedo Ibérico*, 46.-48. zk., 1975eko ekaina-abendua, 111. or.

16. Aitzineko deialdiekin alderaturik, hori zen orain nabarmenduriko aurrerapausoa. Ikus J. Gainza [Patxo Unzueta ren goitizena], «La huelga general en Euskadi», *Combate*, 36. zk., 1975-09-10, 3. or.

17. Gutieneko kopuruak erabili ohi zituen Gipuzkoako Gobernu Zibilararen arabera, 214.416 langileko erroldatik 47.568 lotu zitzaizkion protestari. Gobierno Civil de Guipúzcoa, «Memoria de la provincia correspondiente al año 1975», 1976, GC: 3680. k., AHPG.

zenbait eskualdetan, batik bat¹⁸. Lan-gatazken ugaritze hori Ariasen bigarren erreforma-egitasmoak porrot egitearen oinarri izanen zen, eta honako bi faktore hauek ahalbidetu zuten: lan-hitzarmenen heren bat inguru 1976ko lehen hiruhilekoan berritzekoak izateak, eta Franco desagertu izanak. Hala ere, ezin dugu alde batera utzi 1975eko azaroaren 14an apirilean ezarritako soldata-mugak luzatu egin zituela Ministroen Kontseiluak 1976. urte osorako. Arestian erran bezala, soldata-aldarrikapen soilen aldeko grebak nabarmen oztopatzen zituen horrek. Horrenbertez, halako dekretua goiti-beheiti gatazkak kopuru horietan ugaritzeak erakusten du aldi horretako grebek berariazko eduki antifrankista ere bazutela. Bigarren faktoreari dagokionez, kontuan hartu behar da erregimeneko elitearen zatiketak —1960ko hamarraldiaren amaieratik mobilizazioek tai gabe goiti egitearekin zerikusi handia zutenak— gero eta agerikoagoak zirela, Ariasek lehendabiziko zabaltze-programa ezagutzera eman zuenetik, bereziki. Egoera horretan, sistema osoa elkartzen zuen pertsonaia desagertzeak gobernuaren ahulezia areagotu egin zuen. Testuinguru politiko hori bera izan zen pizgarri mobilizatorako, helburuak zeinahi izanik ere, mobilizatzeko kostuak murrizten ari ziren irudipena sorturik (Domènech, 2002: 213)¹⁹. Izatez, erregimen frankista botatzea egitura-helburu zuen langile-mugimenduak, diktadurak debekatuak baitzituen langileek antolatutako entitate independente oro eta haien klase-interesen alde egiteko tresna nagusiak. Monarkiaren lehendabiziko gobernuak iragarritako liberalizazio-prozesua noraino iritsiko zen jakiterik ez zegoen tenorean, grebak ugaritzeak honakorako balio izan zuen: lan-baldintzak hobetzeko, berehalako epean, eta soldatapeko klaseari lan-harremanak negoziatzeko baldintza hobeak bermatuko zizkion instituzio-markoa taxutzen laguntzeko. Lehenik eta behin, langileen erakundeak eta langileek ekintza kolektiborako zituzten lanabesak legezko izatea *de facto* ezarri. Izan ere, demokrazia parlamentarioek berezkoak dituzten libertate publikoen artean sindikatueta elkartzeko eta grebarako eskubideak ditugu, eta eskubide horiek onartzeko eta lan-aldea ere bazuten amnistia-eskaerak ugaritu ziren hilabete horietako errebindikazio-tauletan. Azkenik, aitzineko urteetan eta, bereziki, 1974-1975 biurtekoan, frankismoaren aurka garaturiko protesta-dinamikaren baitan sarturik arakatu behar da 1976ko mobilizazioen ugaritzea, 1939tik gatazka-boladarik handiena izan zena.

1976ko lehendabiziko hilabeteetan berriz agertu ziren elkartasun-grebak Euskal Herrian: Zarautzen (Gipuzkoa), urtarrilean, eta Andoainen (Gipuzkoa), otsailean. Nafarroan, Enpresaburuen Kontseilu Probintzialak herrialdeko langile oro babesteko hitzarmen orokorra negoziatzeari uko egin ziolarik, manifestazioak eta lanuzteak ugaritu ziren otsailean, enpresa nagusietan, osasungintzan eta irakaskuntzan jarraipen zabala izan zutenak. Aldi berean, sektore-greba egin zuten eraikuntzan, gatazkak zirela-eta, zenbait enpresetatik kaleratuak zituzten

18. 1975eko hirugarren hiruhilekoan 2.580 greba zenbatu zituen Presidentziako Bitarteko Bulegoak, eta 943, laugarrenean. 1976ko lehendabizikoan, aldiz, 17.455 zenbatu zituen (Sartorius eta Sabio, 2007: 79). 1975etik 1976ra bitarteko lan egin gabeko oren zenbaketa orokorrean, % 700 eta % 1.000 bitarteko gorakada erakutsi zuten OSEk eta Lan Ministerioak eskainiriko datuek, urte batetik bertzera (Molinero eta Ysàs, 1998: 96).

19. Ibarrek (1987: 514) nabarmendu bezala, aldaketa politikorako itzaropenak «efektu biderkatzailea sortu zuen, bai zuzeneko izaera politikoa zuten grebetarako, baita soldata-jatorria zutenetarako ere».

langileak berriz hartzeko eta lan-hobekuntzak eskatzeko. Langile horiek berriz onarturik eta soldata-igoerak emanik amaitu zen greba (Iriarte, 1995: 276-283).

Amnistia Franco hil aitzinetik ere oposizioaren errebindikazioen baitan izan arren, Franco gabeko frankismo garaian (1975eko azarotik 1977ko ekainera bitartean) bilakatuko zen mobilizazio soziopolitikoaren ardatz, Euskal Herriko eta Espainiako dinamika politikoa baldintzatuko zuten auzi nagusietako bat bilakatu ere. Euskal Herrian batik bat, atzerabiderik ez zuen amnistiaren aldeko «kontzientzia orokorra» onduz joan zen, poliziako barne-aldizkarietan nabarmendu bezala²⁰. Amnistiaz gain, Franco hiltzeak zabalduko aroko protestek espazio publikoa eskatzea izan zuten ezaugarri nagusi. Aitzineko urteetan hasia zen prozesu hori, baina 1976ko lehendabiziko hilabeteetan areagotu egin zen. Orobat, plazaraturiko aldarrikapenak errotik jartzen zuten auzitan *statu quo*, eta horrek zerikusia zuen Euskal Herrian ezker iraultzaileko erakundeek eragin handia izatearekin. Gatazkek nolako izaera zuten ari zela, honako hau nabarmendu zuen Arabako gobernadore zibilak: «Greba politikoak eta lan-greba uztartu egin dira mugimendu bakarrean, azken batean iraultza-saio serioaren tankera duenean».

Enpresarien pentsaera frankistak, langileen ahalegina hein handi batean zahar-kiurik uzten ari zen lan-harremanen kontzeptuan abiaburu zuenak, okerrarazi egin zituen gatazkek. Araban, soldata-mugei buruzko dekretua goiti-beheiti, lan-hitzarmenen bidezko soldata-igoerak % 30ekoak izan ziren 1976an. Hala ere, gobernadore zibilak zera nabarmendu zuen: «Egoera pribilegiadunari eutsi zion Arabako enpresariak, soldata-hobekuntza eta hainbat motatako gizarte-hobekuntza eskaerei, jaso ohi zituen bezalakoak ez ziren eskaerei, amore emateari uko eginez». «Horrek guztiak gatazka eta subertsioa ekarri zituen». Izan ere, Arabako hiriburua izan zen 1976ko lehendabiziko hilabeteetako gatazkarik garrantzitsuenaren agertokia, bai zenbat langile mobilizatu ziren kontuan harturik, baita auzia zenbat luzatu zen kontuan harturik ere: urtariletik martxora bitartean hiriko lantegi handi gehienetako zuzendariak eta langileak buruz buru jarri zituen gatazkarena, alegia. Urtarrilaren hasieran hasi ziren lanuzteak Gasteizko enpresa handi gehienetan, lan-hitzarmenak berritzeko negoziazioa zela-eta. Greba batze aldera, Borrokan ari diren Lantegietako Ordezkarien Batzordeen Koordinakundea sortu zuten, greban ari ziren enpresetako langileek batzarrean izendaturiko ordezkariek osaturik. Ugazabek lantegiak itxitakoan, elizetara jo zuten langileek batzarrak egitera, eta, hilaren erdialdera, kaleratzeak hasi ziren zenbait enpresatan. Otsailaren 16an eta 23an greba orokorrera deitu zuten, eta martxoaren 3an gailurrera iritsi zen greba-mugimendua: Gobernu Zibilaren beraren arabera, «Gasteiz ia osorik gelditu zen» egun horretan²¹. Ordezkarien Batzordeen Koordinakundeak Asisko San Frantzisko elizan egitekoa zuen arratsaldeko batzarra desegiten ari zen bitartean, bortz lagun hil zituen tiroz Polizia Armatuak, langile-greba zapaltzeko frankismoaren historiaren ekintzarik latzena burutuz.

20. BIR, 142. zk., 1976-01-24, AGCV.

21. Gobierno Civil de Álava, «Memoria de gestión del Gobierno Civil de Álava correspondiente al año 1976», 1977, GC Gobierno Civil / SG Subdelegación del Gobierno: 704. k., 6. karp., AHPA Archivo Histórico Provincial de Álava / Arabako Artxibo Historiko Probintziala.

Ekintza hori errepresioaren kalitate-jauzia izan zen, eta langile-mugimenduaren ihardespena berehala iritsi zen. Nafarroan, herrialdeko hitzarmen orokorraren aldeko borroka bete-betean zela, ORTK kontrolaturik ziharduen Langileen Kontseilu Probintzialak hilaren 3an bertan deitu zuen greba orokorrera, biharamunerako. Jarraipen zabala jaso zuen deialdiak, eta hilaren 5era arte ez zen beheitzen hasi (Iriarte, 1995: 283-284). Hilaren 4an ere hasi ziren lehendabiziko lanuzteak Gipuzkoan eta Bizkaian, hilaren 8an, astelehenean, Arabako protestarekin elkertasunez hein batean hilaren 9ra arte luzatu zen greba orokorrean burutu zirenak²². Zenbait iruzkingileren iritziz, «zer enpresari eta herrialderi eragin dien kontuan harturik, atzokoa hondar berrogei urteotako grebarik garrantzitsuena izan da»²³.

Egitate horiek guztiak gertatu eta berehala, zera ohartarazi zuen Bilboko Poliziaren Bulego Nagusiak: «Agintarien aurkako borroka dago jokoan», eta «subertsioa ez da geldituko harik eta ekinbide subertsibo oro gidatzen duten erakundeetako buruzagien aurka gogor ekin arte»²⁴. Egia erran, legez ezarriko mugak gainditu behar ziren pertzepzioa sakon zegoen sarturik zenbait gizarte-sektoreen baitan. Hala ikusten zen honako bi langile gasteiztar hauen lekukotza aintzat harturik: «Uste dut ezin garela prozesu politikoen gibeletik ibili, agintariak ematen ahal dizkiguten mugetan hertsirik: “Arraio! Ez digutela baimenik eman? Bada egin eginen dugu, eta eman diezagutela!”. Badakigu eurek ez digutela eskubiderik emanen; borroka eginez erdietsi behar dugu» (*in* Gasteiz [Xabier Sánchez Erasukinen goitizena], 1976: 108). Bistan zen engoitik gobernuak karrikan zituen arazoak ez zirela «buruzagiek» eraginiko kontu soila, poliziaren aipatu agirian jaso bezala. Aitzitik, gizarte-sektore zabalak eta beraiekin batera uztarturik aritzen zen gizarte zibila ari ziren mobilizatzen diktaduraren kontra, gero eta esku-bide gehiago erdietsiz. Horren erakusle dugu langile eta auzokideen mugimenduak elkarlanean aritzea, Gasteizko gatazkan bertan agerian egon zenez. Horrez gain, auzi horretan ere nabaritu zen gizonezko grebalariekin emazteek nolako gaitasuna zuten antolakuntzarako.

Errepresio-kostu handia pairaturik ere, espazio publikoaz gobernuak zuen kontrola hautsi egin zen Gasteizko gatazkan, eta horretan zetzan agintarien kezken iturburu. Elizak behin eta berriz okupatzea batzarrak egiteko, etengabeko protestak nahiz karrikako manifestazioak arazo politiko larriak ziren gobernuarendako, hori guztia eta libertate publikoei buruz gobernuak zuen ikuspegia bateraezinak zirelako. Bertzalde, protestak izan zuen klase-izaera eta gatazkan zehar langile-antolakuntzan lorturiko maila altua erronka ageriak ziren agintariendako eta enpresaburuendako, haien lan-harremanen kontzeptua errotik jartzen baitzuten kolokan. Horrek guztiak azaltzen du zergatik eman zuen gobernuak halako erantzun lazgarria, zeinak haren erreforma-programaren sinesgarritasuna behin betirako deuseztatu zuen.

22. Legezko albiste-agentzien arabera, 235.000 langile inguruk hartu zuten parte Bizkaian eta Gipuzkoan, eta Araban ia erabatekoak izan ziren lanuzteak, lan-eroldaren % 95 (45.000 langile) deialdiarekin baturik. *La Vanguardia Española*, 1976-03-09, 7. or. Gasteiz «ia geldirik geratu zen hilaren 4tik 7ra bitartean», Gobernu Zibilaren arabera. Gobierno Civil de Álava, «Memoria de gestión...», aip. dok. Oposizioko iturrien erranetan, 500.000 lagunek hartu zuten parte Euskal Herri osoan. *Oficina Prensa Euzkadi*, 1976-03-10, 3. or. eta 1976-03-11, 4. or.

23. Luis Apostúa, «La gran huelga», *Ya*, 1976-03-09, 15. or.

24. BIR, 520. zk., 1976-03-13, AGCV.

Erreforma multzo nagusia gobernuak eta Movimientoko Kontseilu Nazionalak eratu zuten Bitariko Batzordean geldirik, maiatzaren 25ean biltzeko eskubiderako lege murriztailea onetsi zuten Erresumako Gorteek, eta, ekainaren 9an, elkarte politikoetan elkartzeko eskubiderako lege eskasa. Alta, engoitik nekez ekartzen ahal zuen konponbiderik horrelako deusek. Elkarte politikoetan elkartzeko esku-biderako legea onartu zuten saio berean, alderdi politikoko kide izatea jorratzen zuten Zigor Kodearen artikuluen erreforma-proposamena gibelera botako zutelakoan, gobernuak ez zuen bozkatzeko jarri ere egin, eta horrek eragotzi zuen legeak bere eginkizuna betetzea. Elite politiko frankistaren sektore batek zein karririk arbuiaturik, hau da, gizarte-adostasunik erdietsi ezinik, Arias-Fraga egitasmoak hondoa jo zuen.

Libertateak erdietsi

1976ko uztailaren 1ean Arias Navarrok hartaraturiko dimisioa emateak eta presidente berria, harrigarriro, Adolfo Suárez izendatzeak (hilaren 3an) bigarren mailako pertsonaiez osaturiko gobernu eratzeko bidea eman zuen. Gobernu berriaren ildo ezezaguna bazen ere, Suárez aitzineko gobernuan Movimientoko idazkari nagusi ariturik eta hura izendatzea presidente batik bat sektore erreformistek gaizki harturik, nekez aurreikus zitekeen aldaketa handirik gobernuaren politikan. Presidente berriaren nahia zeinahi zelarik ere, laster egokitu behar zien bere ekinbidea herritarren sektore garrantzitsu baten aldarrikapenei. Espainiako esparruan mobilizazioek beheiti egiteak eta oposizioaren indarrak moderatuenak aukeratzen zituen harreman selektiboko politikari ekiteak ahalbidetu zion Suárezi bere erreforma-programa aitzinera ateratzea. Alta, Espainiako gainerako herrialdeetan ez bezala, Euskal Herrian eutsi egin zieten protestei, eta horrek baldintzatu egin zuen gobernuaren programa.

Gobernu berriak buru egin behar izan zion lehendabiziko erronketariko bat honako hau izan zen: amnistiaren alde uztailaren 5etik 11ra bitartean Koordinakunde Demokratikoak²⁵ antolaturiko ekintza-kanpaina. Aste horretako manifestaziorik jendetsuena, baina, Kaleraturiko Langileen behin-behineko Batzordeak deiturik egin zuten, Bilbon, hilaren 8an, lan-amnistiaren alde. Biharamunean, amnistiaren alde Santurtzin (Bizkaia) eginiko manifestazioan kalez jantziriko polizia-agenteek auzokide bat hil zuten, buruan tiro bat botarik. Hori salatzeko greba orokorra egin zuten Bizkaian, hilaren 12an. Gero eta agerikoagoa zen karrikako aldarrikapenek erantzun politikoa behar zutela. Horren inguruan, ondokoa ohartarazten zuten Bilboko Poliziaren Bulego Nagusiko iturriek: oposizioak antolaturiko manifestazioetan gero eta «asaskaldi» handiagoa antzematen zela, eta oposizioko kideak «karrikako jabeak» bilakatu nahian zebiltzala. Hori zela kausa, gobernuak «indar horiekin hitzartu beharko zuen demokratizazio-prozesua»²⁶. Alde horretatik,

25. Koordinakunde Demokratikoa 1976ko martxoaren 26an aurkeztu zen, erregimen frankistarekiko «haustura demokratikoa» ezartzeko eta «nazionalitateendako» eta «eskualdeendako» osoko libertateak erdiesteko aritzen ziren Espainiako esparruko erakundeak biltze aldera. 1974ko uztailaren 30ean aurkezturiko JDE Espainiako Junta Demokratikoa, PCEk bultzaturikoa, eta 1975eko ekainean eraturiko PCD Konbergentzia Demokratikorako Plataforma, PSOEek eta talde demokristauek (baita EAJk ere) sustaturikoa, batu zituen Koordinakunde Demokratikoak (horregatik *Platajunta* goitizenez egin zen ezagunagoa). Euskal Herrian ezin izan zuten oposizio antifrankistaren erakunde bateraturik sortu.

26. BIR, 1284. zk., 1976-07-10, AGCV.

argigarria da 31/69 auzian zigortu zuten Gregorio López Irasuegik eman zuen testigantza, 1976ko irailean, askatu zutenean:

[Espetxetik] ateratzean, aldaketa handia nabaritu dut karrikan. Espetxera sartu nintzenean, dena zegoen debekaturik. Zeinahi hitz, *Euskadi*, erraterako, ahopeka erran behar zen. Orain, kontua ez da ikurrina inposatu denetz, baizik eta langileen batzar jendetsuak ari direla inposatzen. Lehen irudikatu ere ezin genituen borroka-moldeak inposatu dira. Herrian jauzi handia eman da. Eta hor dator saio erreformista, langile- eta herri-borrokaen aurrerapena asimilatzen ahalegintzeko ihardespena dena (Castellsek aipaturik, 1977: 46).

Eduardo Moreno Bergaretxe *Pertur* ETA(pm)ko buruzagia desagertzeak (uztailaren 23an) sumindura eta protesta gehiago ekarri zituen. Bistan zen mobilizazioak gelditzeko eta instituzioek gidaturiko erreforma-programa garatu ahal izateko amnistia onartzea lehendabiziko urratsa zela, ezinbertzean. Alabaina, «personen bizitza nahiz segurtasuna» kaltetu edo arriskuan jarri zituzten ekintzak bazterturik, ETAko bi ildoetako preso anitz baztertu zituen amnistiarako uztailaren 30eko 10/1976 Errege Lege Dekretuak. Horregatik zera iritzi zioten Euskal Herriko sektore zabalek: «Euskadiri ez dio eragiten indultu horrek»²⁷. Beraz, uztaileko lege-dekretuaren bidez hainbat preso politiko karrikatzeak ez zuen balio amnistiaren aldeko mobilizazioak gelditzeko. Harrezkero, batik bat Euskal Herriko eskaera bihurtu zen amnistia. Testuinguru horretan, herrietako besta nagusiek garrantzi berezia izan zuten, inguratu zituen politizazioarengatik, batzuetan bat-batekoa zena. Hondarribiko (Gipuzkoa) besten baitan, *Pertur* askatzearen alde bat-batean eginiko manifestazioa desegiten ari zenean, Jesús María Zabala CCOOeko kidea hil zuen tiroz Guardia Zibilak. Mobilizazioak areagotu egin zituen horrek, eta hurrengo egunetan batzarrak, lanuzteak eta manifestazioak ugaritu ziren. Poliziaren iturrien arabera, irailaren 13an «Gipuzkoako industria-sektore osoa» geraraztea lortu zuten, baita «Ezkerraldeko, Eskuinaldeko, Basauriko, Durangaldeko eta Mungiako lantegirik garrantzitsuenak» ere. «Bizkaian, hala jarraitu zuten hurrengo egunetan». Nafarroan eta Araban ere gertatu ziren «lan-istiluak» hilaren 13an eta 14an²⁸. Borroka horien babesean, Bizkaiko Lantegien Koordinakundea eratu zuten, enpresa-batzarretan izendaturiko ordezkariak osaturik, mobilizazioen helburuak eta estrategia batera antolatze aldera. 180 enpresatako ordezkariak biltzea lortu zuen Koordinakundea bere aldirik indartsuenean, eta berebiziko garrantzia izan zuen irailaren 27ko amnistiaren aldeko borroka-eguna Bizkaian arrakastatsua izateko (Ibarra, 1987: 495-502). Izan ere, mobilizazio-giro horretan, 1975eko fusilatzeen lehendabiziko urteurrenaren kariatz, greba orokorrera deitu zuten Euskal Herrian oposizioko erakunde gehienek, amnistiaren alde. Informazio orokorreko hedabideen erranetan, Euskal Herriak «bere historiako grebarik garrantzitsuena» bizi izan zuen egun horretan²⁹. Poliziaren ikuspegiaren arabera, greba «ia erabatekoa izan zen Bizkaian eta Gipuzkoan, eta jarraipen zabala jaso zuen Araban eta Nafarroan»³⁰.

27. Comisiones Pro Amnistía de Euskadi, «Al pueblo de Euskadi», 1976-07-30, AGCV.

28. BIR, 1611. zk., 1976-09-25, AGCV.

29. *El País*, 1976-09-28, 1. or.

30. BS *Boletín de Situación*, 182. zk., 1976-09-29. GC Gobernadores Civiles: 532. k., AGDGC Archivo General de la Delegación del Gobierno en Cataluña.

Horri guztiari zera gehitu behar zitzaion: nola indartu eta zabaldu zen auzokideen mugimendua, 1976an bere garairik onenetarikoa izan zuena. Hasiera batean, Bilbo Handian ia bakarrik aritzen baziren ere, 1976an Euskal Herri osora zabaldu ziren haren antolabideak: auzokideen elkarteak, legearen arabera sorturikoak, eta auzoko batzordeak, klandestinoak zirenak. 1976ko udan alkate batzuek dimisioa eman zuten, tokiko erakundeak demokratizatzeko auzokideek eginiko kanpainaren ondorioz. Lurralde-antolamenduaren eta plangintzaren aldeko borroka ere garrantzitsuak izan ziren. Era berean, aipamen berezia merezi dute borroka ekologistek. Apirilean, Lutxanan (Barakaldo, Bizkaia) Sefanitro enpresak zuen lantegian amoniako-fabrika eraikitzeo baimen-eskaera gibelerara botatzea erdietsi zuten. Eta, urtean zehar, Lemoizen (Bizkaia) eta Ispasterren (Bizkaia) zentral nuklear bana eraikitzeo egitasmoen kontrako mobilizazioak berpiztu egin ziren, baita Santurtziko zentral termikoak eraginiko kutsaduraren aurkakoak ere (Andrés eta Maisuetxe, 1980: 36-41).

Euskal Herriko egoera soziopolitikoa zela-eta agintariek nolako kezka zuten erakutsiz, Bilboko Poliziaren Bulego Nagusiko berriemaileek nabarmendu zuten «karrika oposizioaren esku» utzi zela «anitzetan», ondokoa ohartaraziz: «Egiaztaturik dago, zeinahirengatik, erregimenaren aurkako erakundeek polizia-eskualde honen bizitza geldiarazi nahi dutenean, erraz erdiesten dutela, estakuru egokiren bat argudiatu, eta ez dagoela, lan-eremuan, subertsio-molde hori gelditzeko gai den indarrik. Horregatik, [grebara] joko dute zalantza egin gabe nazioaren gobernuaren aurkako indar-kolpea eman nahi duten guztietan»³¹. Hein handi batean, gobernuaren agenda baldintzatzeotan, urteko lehendabiziko hiruhilekoan eginiko antzeko mobilizazio-zikloa behar zuen oposizioak. Urriaren 11tik azaroaren 21era bitartean Bizkaiko eraikuntza-sektorea ia erabat geldirik egon zen greba zela-eta (Ibarra, 1987: 519-520), baita Nafarroakoa ere, azaroaren 22tik 1977ko hasierara arte (Iriarte, 1995: 293-294). Halako gatazkak aintzat harturik, bertze protesta-ziklo bati ekiteko apustua bideragarria zela ematen zuen.

Gobernuak neurri ekonomikoei buruzko urriaren 8ko 18/1976 Errege Lege Dekretua onestearen kariaz, greba orokorrera deitu zuen COS Erakunde Sindikalen Koordinakundeak³², azaroaren 12rako, Estatuko lurralde osoan. 1975eko apiriletik indarrean zeuden —sarritan betetzen ez bazituzten ere— soldata-igoerak mugatzeko neurriak gogortu egiten zituen aipatu dekretuak, baita hitzarmen kolektiboak negoziatzeko epeak murriztu ere. Horrez gain, aldi baterako kontratu mota batzuk sarrarazten zituen Errege Lege Dekretuak. Dena den, langile-klasearen aurka dekretu horrek zekarren neurriak larriena honako hau zen: lan-harremani buruzko apirilaren 6ko 16/1976 Legearen 35. artikulua bertan beheiti uztea, sei hilabetez, hasiera batean. Kaleratze-kasuan, langileak bere lanpostuari eustea bermatzen zuen artikulua horrek, baldin eta Lan Magistraturak irizten bazion ez zegoela langilea kaleratzeko bidezko kausarik. Aitzineko lan-legedi frankista osoa iraulia zuen artikulua horrek, zeren eta, ordura arte, erregimenaren legediak langilea bidaltzeko aukera eskaintzen zion enpresaburuari, baita aipatu kasuan ere, kalte-

31. BIR, z/g, 1976-10-01, AGCV.

32. COS CCOOek, UGTk eta USO-LSB Langileen Sindikal Batasunak 1976ko uztailaren 22an sorturiko erakundea zen, langileen errebindikazioak eta aldaketa politikoaren eta sindikalaren alde egiteko langile-erakundeen ekintza batze aldera.

ordaina ordaindurik. Horrekin guztiarekin batera, ordea, zentzuzkoa dirudi pentsatzeak deitzaileek ondoko zeharreko asmoa ere bazutela: monarkiaren gobernu estutu, erreforma oposizioarekin negoziatzea.

Deialdiak jaso zuen jarraipena «600.000 bat» langile kopuruan jarri zuten poliziaren txostenetan. Grebak metalgintzan eta eraikuntzan izan zuen jarraipenik handiena, baita zenbait lurralde-eremutan ere: Madrilan, Bartzelonan, Sevillan, Valentzian eta Euskal Herrian. Euskal Herriari dagokionez, baina, langile kopuru handia mobilizatu bazen ere, grebak jasoriko oihartzuna irailaren 27koak jaso zuena baino nabarmen tipiago izan zen. Amnistiak mobilizazio-gaitasun handiagoa izateaz gain, jarraipen tipiago horrek euskal sindikalgintzaren sektore batek deialdiari egin zion boikotarekin izan zuen zerikusia, menturaz. Era berean, Ibarrek nabarmendu bezala (1987: 524), langile anitzek mesfidati jaso zuten COSe antolaturiko deialdia, euren mobilizazio-egiturak bazterturik egin zuelako. Interpretazio-arloan, zera ohartarazi zuten polizia-iturriek: «1939tik nehoiz ez dute parte hartu Espainiako geografian zehar 500.000 lagunek baino gehiagok legez kanpoko erakundeek hain denbora gutian eginiko deialdian». Alta, ikuspegi politikotik, «gobernua, borroka-egunaren helburua zena, indarturik atera» zela ondorioztatu zuten, ondokoa argudiatzeki: «Salbuespenak albuespen, lanuzte hutsa izan da, karrikara atera ez dena»³³.

Espainiako esparruan, zenbait hilabete lehenagotik antzematen zen mobilizazioak moteltzen ari zirela, baina 1977an areagotu egin zen beherakada. Batasun antifrankista hedatu zen moduaren ondorio izan zen hori, hein handi batean. Alegia, 1976ko martxoan Koordinakunde Demokratikoa eta, urrian, POD Erakunde Demokratikoen Plataforma³⁴ eratzeak zedarrituriko batasunaren ondorio, Espainian nagusi zen oposizioaren estrategia politikoak kalte egin baitzuen mobilizazioei. Izan ere, «“hitzarturiko haustura”ren estakuru, negoziatzea abiapuntutzat zuen aldaketa politikoaren kontzeptuan» oinarritzen zen estrategia hori (Gallego, 2008: 448-449). Udaz geroztik, *Platajuntako* zenbait buruzagi gailenek bi aldeko bilerak egin zituzten Suárezekin, Koordinakunde Demokratikoa bazterturik, erakunde hori sortzearekin batera adosturiko bide-orria nabarmen urratuz. Bertzalde, ezker erradikalak eta estatuz bertzeko ezker nazionalistek, zeinek protestak bultzatzeko eginkizun berezia izan zuten, zera salatu zuten: gobernuarekin negoziatzeko ezarritako programa anbigua eta zehaztugabea zela, eta Bederatzien Batzorde delakoa³⁵ ez zela oposizioko indar guztien ordezkari.

Abagune berri horretan, 1976ko hondarraldian gobernuak berreskuratu egin zuen inizatiba politikoa, eta erreforma politikorako Lege Egitasmoa aitzinera

33. BS, 189. zk., 1976-11-17, GC: 532. k., AGDGC.

34. 1976ko urriaren 23an sortu zuten POD, lurralde-erakunde bateratuekin elkarlanean aritzeko, mobilizazioak, baina baita gobernuarekiko negoziatzea ere, antolatze aldera. Euskal Herrian koordinakunde bateraturik ez zenez, ordea, PODEk ez zuen eraginik izan.

35. Bederatzien Batzordea monarkiaren gobernuarekin negoziatzeko 1976ko abenduan PODEk izendaturiko lantaldea izan zen. Batzordea eratzeke honako banaketa hau egin zuten: bi ordezkari sozialista (PSOeko eta PSP Alderdi Sozialista Popularrako ordezkari bana), sozialdemokrata bat, kristau-domokrata bat, PCEko bat, liberal bat, eta Kataluniako, Galiziako eta Euskal Herriko ordezkari bana. Euskal Herrian, oposizioaren erakunde bateraturik ez zenez, EAJko ordezkaria izendatu zuten. Erakunde sindikalak ere ordezkari bat izendatzekoak ziren (eta, hortaz, *Hamarren Batzorde* izena jarriko zioten lantaldeari), baina COSen barne-tirabirak zirela-eta, ez zuten aukeratu ere egin.

ateratzea erdietsi zuen; lehenik Gorteetan, eta, ondoren, erreferendum bidez. Sufragio unibertsal bidezko hauteskondeekin burutzekoa zen erreforma. Legearen testua anbigua zen, eta ez zuen zehazten bozetatik eratuko ziren Gorteak konstituziogile izanen zirenetz. Horrez gain, uztailaren 14an Gorteek onarturiko Zigor Kodearen erreforma ere zehaztugabea zenez, Suárezen erreforma noraino iritsiko zen bere garapenean ikusi beharko zen. Demokrazia parlamentarioen estandarrekin alderaturik, gobernuaren egitasmoak zenbait gabezia zituen. Horren adierazle ziren gobernuak PCE legeztatzeari erreparoa izatea³⁶ zein, erreforma politikorako lege-egitasmoa erreferendum bidez onartu eta gero, erregimenaren barne-buletinetan artean talde politiko «legalak», «legeztatzeko moduak» eta «ezin legeztatuzkoak» bereiztea³⁷.

Muga horiei zera gehitu behar zaie: errepresioaren tamaina³⁸, Euskal Herrian are handiagoa izan zena, 1977ko lehen seihilekoko mobilizazioak jarraipen handikoak izan zirelako, eta eduki berezia izan zutelako³⁹. Estatuko gainerako lurraldeetan, aldiz, beheiti zihoazen mobilizazioak. Nahiz eta gobernuak libertateak onartzea atzeratu, Euskal Herriko protestek inposatu egin zituzten, osorik inposatu ez arren. Mobilizatorako CCOOek zuten gaitasun handiak beldurturik, batik bat, legeztatu zuen PCE Suárezen gobernuak (Marín Arce, 2006: 92-93; Sartorius eta Sabio, 2007: 736-771); era berean, ezker abertzaleko eta estatu-esparruko ezker iraultzaileko zerrendak ere hauteskondeetara aurkeztea onartu behar izan zuen. Horrez gain, ETAko preso oro karrikaratu behar izan zuen arian-arian, amnistia bozen osterara arte eman ez bazuen ere.

1977a amnistiaren aldeko itxialdiekin, gose-grebekin eta manifestazioekin hasi zen Euskal Herriko hainbat herritan. Errepresioaren aurka grebarako deialdiek zuten mobilizazio-gaitasunak bere horretan zirauen, urtarrilaren 26an Bizkaiko 42.935 langile (herrialdeko lan-errodaren % 14 inguru) lanera ez joateak egiaztatu bezala, Madrilgo Atocha karrikako abokatu laboralisten kontrako atentatua salatzeko estatu-esparruan eginiko deialdiari jarraiki⁴⁰. Amnistiaren aldeko mobilizazio-astearekin uztarturik, martxoaren 3ko gertaeren lehendabiziko urteurrena mobilizazioaren indarraren bertze erakusle bat izan zen. Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzuaren arabera, Arabako 40.000 langilek (herrialdeko soldatapeko

36. Horri dagokionez, honako hau da orain arte plazaraturiko tesirik dokumentatua: PCE hauteskondeen ondoren legeztatzeko aukera aintzat hartzen zuela gobernuak, baita militante komunistak bertze sigla batzuen pean aurkeztea baimentzea ere. Hipotesi horretan, eroso sentitzen ziren oposizioko alderdi batzuk eta Mendebaldeko kantzelaritzak, batik bat AEB Ameriketako Estatu Batuetakoa (Sartorius eta Sabio, 2007: 736-771).

37. BS, 194. zk., 1976-12-22, GC: 532. k., AGDGC.

38. Gobernazio Ministerioaren datuen arabera, 1977ko urtarrilaren hondarretik ekainaren 15era bitartean, 4.733 lagun atxilotu zituzten zio «politiko-sozialengatik», hau da, 30 bat eguneko (Sartorius eta Sabio, 2007: 330).

39. Urteko lehen hilabetei buruz Nafarroako Gobernu Zibilak bildu zituen datuek adierazten dute nolako erritmoa zuten mobilizazioek: 58 manifestazio urtarrilean (ia bi eguneko), 23 otsailean, eta 28 martxoan, Iruñean gehienak. Gobierno Civil de Navarra, «Memoria 1977», 1978, I, MI, SGT: 32/11462 k., AGA.

40. Gobernador civil de Vizcaya, «Télex n.º 61», 1977-01-27, AGCV.

herritarren % 54k) hartu zuten parte greban⁴¹. Gobernu Zibilak Gasteiz «ia osorik» gerarazi zutela aitortu zuen urteko txostenean⁴².

Martxoaren 8an, ETA(pm)ko bi kide hil zituen Guardia Zibilak, Itsasoko (Gipuzkoa) errepide-kontrolean. Biharamunetik aitzina, lanuzteak egin zituzten berriz Gipuzkoan, ETAko bi ildoek batera deiturik⁴³. Greba orokorra Erreterian izan zen gogortasun berezikoa, zenbait egunez luzatu zen, eta egunero milaka lagun bildu ziren batzarrean, herriko plazan (Iriarte *Bikila*, 1999: 314-316). Egun horietan, poliziaren berriemaileek nabarmendu zuten amnistia garrantzi bereziko aldarrikapena zela Euskal Herrian, ondokoa ohartaraziz: nekez geldituko zela «eskaeren katea» preso politikoen karrikatze «partziala» agindu bakoitzean⁴⁴. Mobilizazioek berriro ere goiti eginen zutelakoan, 10/1976 Errege Lege Dekretua zabaltzen zuen bertez lege-dekretu bat onartu zuen Ministroen Kontseiluak, martxoaren 11n. 1976ko uztailaren lege-dekretuaren 1. artikuluari emaniko testu berrian pertsonen «bizitza nahiz segurtasuna» kaltetu zituzten presoak askatzea hitzez hitz bazterturik, amnistiaren aldeko mobilizazioak bultzatu zituztenek arbuatu zuten zeharo graziatzko neurrietarako martxoaren 14ko 19/1977 Errege Lege Dekretua. Horrez gain, indultuaren bidez karrikatzen ahal ziren presoak (ehun inguru aterako ziren) motel askatu zituzten, eta horrek amorrarazi zuen euskal gizartearen sektore handi bat. Bertzalde, Aberri Eguna eta Maiatzaren Lehena karrikan ospatzea debekatu zuen gobernuak, eta horrek eskubideak eta libertateak osorik onartzeko zinezko asmorik ote zuen zalantza areagotu egin zuen. Testuinguru horretan, EAJren EEB Euzkadi Buru Batzarrak Hamarren Batzordeari babesak kentzea erabaki zuen, apirilaren 13an, «presoak motelegi ateratzen ari direlako, eta horrek gure herriaren samina luzatzen duelako». EAJK proposaturikoa zen Hamarren Batzordean Euskal Herriko sei alderdiren izenean ari zen ordezkaria, Julio Jáuregui⁴⁵.

Maiatzaren hasieran, gobernuak «amnistiatzeko modukoak» omen ziren presoak karrikan zirela iragarri ondoren, 30 bat euskal preso politikok jarraitzen zuten giltzapeturik. Amnistiaren aldeko ekintza-kanpaina antolatu zuen orduan Gipuzkoako Amnistiaren aldeko Batzordeak, hilaren 9tik 15era bitarteko asterako, Hegoaldeko lau hiriburuetan elkarretaratzeekin amaitzekoa zena. Tentsioa gero eta handiago bilakatu zen, ekitaldiak geldiarazteko poliziak eginiko bidegabekeriak bata bertzearen gibeletik etorri arau. Nafarroako Gobernu Zibilaren arabera, «orain arte ezagutu diren “greba orokorrik” gogorren, luzeen eta bortitzenetarikoa» ekarri zuen horrek guztiak⁴⁶. Maiatzaren 12tik 14ra bitartean, Euskal Herrian zehar mobilizazio jendetsuak ugaritzen ziren bitartean, Guardia Zibilak hiru lagun hil zituen

41. SIGC Servicio de Información de la Guardia Civil, 542ª Comandancia, «Nota informativa. Asunto: Manifestaciones en Vitoria con motivo de un aniversario», 1977-03-04, GC/SG: 983. k., 2. karp. AHPA. Gipuzkoan, 12.000 langilek, gutienez, hartu zuten parte greban. BS, 203. zk., 1977-03-09, GC: 514. k., AGDGC.

42. Gobierno Civil de Álava, «Memoria de gestión del Gobierno Civil de Álava correspondiente al año 1977», 1978, GC/SG: 704. k., 7. karp., AHPA.

43. Euzkadi Ta Askatasuna (ramas militar y político-militar), «Declaración y llamamiento de ETA a las fuerzas políticas», 1977-03-09, LBF, Kronologia 4, katalogatzeko bidean.

44. BS, 203. zk., 1977-03-09, GC: 514. k., ADGC.

45. *El País*, 1977-04-14, 1. or.

46. Gobierno Civil de Navarra, «Memoria 1977», aip. dok.

tiroz; auzokide bat hil zen Polizia Armatuak jaurtiriko kautxuzko balak eraginiko bihotzekoak jota, etxeko balkoian zela, eta autobideko behargin bat hil zen auto batek harrapatutik, errepidean jarririko barrikada kentzen ari zela. Hilaren 16an, gerlaosteko garaia oroitazten zuen gertaera jazo zen Bilbon. Javier Núñez herri-tarra Polizia Armatuak jipoitu zuela salatzen joan zen polizia-etxera, eta handik ateratakoan errizino-olioa eta botila bat koñak edanarazi zizkieten. Núñez hepatikoa zenez, hil egin zen handik egun gutira⁴⁷. Horri guztiari ihardetsiz, ETA(pm)tik bereizi berriak ziren Talde Bereziek Guardia Zibileko agente bat hil zuten tiroz, hilaren 18an, Donostiako Amara geltokian.

Testuinguru horretan, eta maiatzaren 24a baino lehenago amnistia orokorra eman ezean KAS Koordinadora Abertzale Sozialistako alderdiek ekainaren 15eko hauteskunderi boikota iragarriarik, euskal preso politikoendako karrikaratze-neurri gehiago onartu zituen Ministroen Kontseiluak, maiatzaren 20an. Kasu batzuetan, ordea, erbesteratzea onartzearen baldintzapean eman zuen askatzea. Ministroen Kontseilua bildu baino oren batzuk lehenago Javier de Ybarra enpresaburu, Bilboko alkate frankista ohi eta Bizkaiko Diputazio Probintzialeko presidente ohia bahitu zuten Talde Bereziek. Martín Prieto *El País*eko zutabegileak zera nabarmendu zuen:

Suárezen lehendabiziko gobernuak soilik entelegatu zuen zehazki zer erran-nahi politiko duen amnistiak Euskadiko amnistiaren aldeko asteak sei hildako ekarri zituenean. Orduan —berandu eta gaizki— hustu zituen espetxeak etakide historikoez, hauteskundeak baino lehenago⁴⁸.

Bozen ostean, UCD Zentro Demokratikoaren Batasunaren gobernu berria axolagabe agertu zen amnistiarekiko. Are gehiago: Frantziako gobernuari Miguel Ángel Apalategi *Apala* euskal errefuxiatua estraditatzeko eskatu zion. Horrek guztiak suspertu egin zituen mobilizazioak. Uztailaren 10ean, amnistia eta Euskal Herriarendako Autonomia Estatutua eskatzeko Askatasunaren Ibilaldia hasi zen, Amnistiaren aldeko Batzordeek antolatutik. Hurrengo asteetan Hego eta Ipar Euskal Herria zeharkatu zituen Ibilaldiak, eta agorrilaren 28an amaitu zen Arazurin (Nafarroa), Guardia Zibilak indarrez sakabanaturiko elkarretaratze jendetsuan. Irailaren lehendabiziko astean, manifestazio erraldoiak egin zituzten berriz, Apala estraditatzearan aurka eta amnistiaren alde: Bilbon, hilaren 2an, eta Donostian eta Gasteizen, biharamunean (Gasteizko manifestazioak jarraipen ttipiagoa izan bazuen ere). Manifestazio horietan guztietan, independentziaren aldeko oihuak entzun ziren. Herri-mobilizazioak gailenduko ote zuen beldurrez, manifestaziora deitu zuen Euskal Parlamentarien Batzarrak, hilaren 8rako, Donostian, bere buruarendako babesa eskatzeko honako helburu hauek aldezteko: amnistia osoa lortzeko, erbesteratutak itzultzeko, alderdi oro legeztatzeko, eta Euskal Herriarendako aurreautonomia-erregimena erdiesteko. Alta, deialdia herri-mobilizazioa berreskuratzeko alderdi nagusien azpijokotzat salatu zuen mobilizatzen ari ziren sektoreetako batek. Testuinguru horretan, ezker abertzaleko alderdiek kontrolatu gabeko zaleen eta manifestazioaren zaindarien arteko istiluak gertatu ziren manifestazioan, eta Antonio Monforte EAJko diputatua zauritu egin zuten.

47. *El País*, 1977-06-02, 11. or.

48. Martín Prieto, «Los últimos presos del franquismo», *El País*, 1977-06-19, 10. or.

Parlamentarien Batzarrak gobernuaren solaskide eraginkorra izateari uzteko arriskuaren aitzinean, amnistiaren auziari heldu zion UCDk, azkenean. Irailaren 14an, Salvador Sánchez Terán UCDko diputatuak zera adierazi zuen Kongresuan: bezperan «amnistia orokorrari eta behin betikoari» buruz katalan eta euskal gutiengoak aurkezturiko mozioaren «espiritua» berea egiten zuela haren alderdiak⁴⁹. Amnistiaren alde irailaren 17an Iruñean eginiko bertze manifestazio baten ostean, ondokoa nabarmendu zuen *El Paísek*, editorial adierazgarrian: «Askatasunaren Ibilaldiak eta iraileko manifestazio jendetsuek jasoriko herri-oihartzun handiak txunditurik, menturaz, euskal auziari ausardiaz heltzea eragozten zuen paralisi bitxitik ateratzeko prest bide dago Suárezen gobernu»⁵⁰.

Amnistiarako urriaren 15eko 46/1977 Legearen behin betiko testuak, urriaren 6an hitzartu zutenak, elkarri eginiko amore emateen jokoaren traza handiagoa izan zuen zinez adosturiko prozesuarena baino. Izan ere, testua ondokoaren emaitza izan zen: azkenean aurkeztu zituzten bi lege-proposamenak⁵¹ alderatu zituen *ad hoc* eraturiko batzordearen akordioarena, alde batetik; eta batik bat Euskal Herritik zetozen zenbait ahots kritikok eraginiko presioarena, bertzetik. Ahots horiei guztiei esker, hiru muga-datako aplikazio-eremua ezarri zuten azkenean, zeinak 1977ko ekainaren 15a baino lehenago pertsonen aurka buruturiko biolentzia larriko ekintzengatik auzipetuak karrikaratzea aurreikusten zuen, baldin eta «libertate publikoak berrezartzeko edota Espainiako herriendako autonomia aldarrikatzeko xedea» antzematen bazen ekintzaren oinarri (1.b art.).

Legea goiti-beheiti, berriro ere izan zen beharrezkoa herri-mobilizazioa Francisco Aldanondo ETako hondar presoak karrikartzeko. Azaroan, VI. Eskualde Militarreko kapitain jeneralak uko egin zion Aldanondori amnistia aplikatzeari, eta horrek protesta gehiago ekarri zituen, Euskal Parlamentarien Batzarrari Aldanondo askatzeko eskarazi ziotenak. Horren guztiaren ostean baino ez zuen agindu Zuzentasun Militarreko Auzitegi Gorenak Aldanondo askatzeko (Letamendia, 1979: 24-25). Hala ere, bertze erakunde politiko batzuetako zenbait dozena presori ez zieten 46/1977 Legea aplikatu⁵². Handik gutira espetxeak euskal erakunde armatuetako kidez berriz betetzea nolnahi interpretaturik ere, datu horrek zera

49. *Diario de Sesiones del Congreso de los Diputados*, 8. zk., 1977-09-14, 202. or. Uztailean, Kongresuko mahaia eratu eta berehala, Euskal Parlamentarien Batzarrak aurkezturiko ekimena jasotzen zuen, hein batean, katalan eta euskal gutiengoaren testu-proposamenak. Uztailean ere antzeko mozioa aurkeztu zuten PCE-PSUCeko diputatuak.

50. «País Vasco: nuevas perspectivas», editoriala, *El País*, 1977-09-18, 8. or.

51. Alde batetik, irailaren 30ean PSOEk, PCEk, PSPk eta katalan eta euskal gutiengoak aurkezturiko proposamena, ordura arte oposizioak aurkezturiko proposamen guztiak bateratzen zituena. Bertzetik, urriaren 2an UCDk bideratu zuena.

52. 1977ko abenduaren hondarrean, Espainiako espetxeetan 49 preso politiko zeudela salatu zuen abokatu-talde batek. Preso horiek honako erakunde hauekin zuten lotura: PCE(r) Espainiako Alderdi Komunista (berrantolatua)rekin zein GRAPO Urriaren Leheneko Erresistentzia Talde Antifaxistekin, 36; MPAIAC Kanariar Uharteendako Autodeterminazioaren eta Independentziaren aldeko Mugimendurekin, bederatz; PCE(i) Espainiako Alderdi Komunista (internazionalista)rekin, hiru; eta ETA(m) Euskadi Ta Askatasuna (militarra)rekin, bat. Ikus *El País*, 1977-12-28, 15. or. Giltzapeturik zegoen etakidea David Álvarez zen, Lemoizko zentral nuklearraren aurka abenduaren 18an eginiko ekintzan Guardia Zibilak zauritu eta atxilotu zuena. Abenduaren 9tik, Francisco Aldanondo 46/1977 Legeari men eginez askatu zuten hondar presoak karrikaratu zuten egunetik, abenduaren 18ra bitartean, beraz, ez zen euskal erakunde presorik izan.

erakusten du argi eta garbi: gobernuak ez zuela preso politiko oro askatzeko asmorik, eta mobilizazioen tamainak behartu zuen lekuetan baino ez zuela karrikatze osoa eman.

Gibel-solasa: aldaketa erdietsi

Frankismoaren amaieran Euskal Herrian izan zen mobilizazio-maila ez da Estatuko herrialde orotan izaniko mobilizazioen tamainaren adierazgarri. Hala ere, pentsaezina da zenbait herrialdetako politizazio- eta protesta-mailari eusten ahal izatea ezein gobernu bere oinarritzko printzipio batzuei uko egin gabe. Antifrankismoak ezin izan zuen erregimena bota, baina Franco gabeko frankismoko lehendabiziko gobernuaren erreforma-programa galarazi zuen, eta bigarren gobernuak ildo beretik jarraitzea eragotzi zuen, oposizioaren zenbait jarrera hein batean bereganatzera behartuz. Euskal Herriko mobilizazioen indarra aintzat hartu gabe ezin dira azaldu oposizioaren garaipen horiek. Era berean, protesta artean mobilizatu gabe zeuden Estatuko bertze lurralde batzuetara hedatzea nekez entelegatuko litzateke antifrankismoak betidanik babes handien izan zuen eremuetan lorturiko indarra kontuan hartu gabe. Beraz, aldaketa politikoa ezin da azaldu batbateko fenomeno izan balitz bezala, ezta gobernu-eliteek aitzinetik planifikaturiko prozesua izan balitz bezala ere. Aitzitik, 1960ko hamarraldia abiaburu duen mobilizazio-ziklo luzearen ondorioz interpretatu behar da, nagusiki, jatorria Francoren hondar urteetan duena, eta azkeneko erasoaldia monarkiaren gobernuen agintaldietan duena. Carrero Blanco hil zutenetik 1977ko ekainaren 15eko bozetara bitartean Euskal Herrian arian-arian erdietsiriko lorpenak funtsezkoak izan ziren aldaketa politikoa azkartzeko. Lehenik, Franco artean bizi zelarik, grebak hedatu ziren, lurralde-ikuspegitik: bai gatazkan ari ziren langileekin elkartasunez, baita erakunde armatuetakoa kideei eginiko gerla-kontseiluen aurka ere. Gizarte-gatazka isilaraztean bere legitimazioaren iturriarik nagusietakoa zuen erregimena kinka larrian jarri zuen horrek guztiak. Franco hil ondoren ugaritu ziren mobilizazioak, sarritan gobernu-agintariak nekez onartzen ahal zuten erradikaltasun-maila zutenak, eta horrek zera erakutsi zuen: Arias-Fraga egitasmoak, itxura demokratizatzailearen gibelean, frankismoaren demokrazia organikoaren zenbait osagairi eusten ziela, eta bideraezina zela. Azkenik, 1976ko uztailean eraturiko kabineteak libertate publikoak onartzeari uko eginik ere, gizarte-sektore zabalak libertate horietan praktikan aritzeak ondokoa egitera hartaratu zuen Suárez: hauteskundeetan parte hartu nahi zuen alderdi politiko orori aurkezten uztera —alderdi batzuek izena aldatu behar izan bazuten ere—, eta preso politiko gehienak askatzera.

Urte horietan, gero eta zabalagoak eta pluralagoak ziren gizarte-sektoreak politizatu eta mobilizatu arau, oposizioaren aldarrikapen nagusiak «emanarazi» egin zizkieten gobernuari: egitatez lehenik, eta legez onaturik, ondoren. 1978ko urrian eskainiriko hitzaldian, José María Benegas PSOEko diputatu eta Euskal Kontseilu Orokorreko kontseilariak jokabide horrek nolako ondorioak ekarri zituen ohartaraziko zuen: «Euskal Herriko aldarrikapen oro emanarazi egin behar izan diote [gobernuari]; hori dela-eta, masa-mobilizazioen bideak, baita biolentzia ere, instituzio-, negoziazio- nahiz parlamentu-bideei gailendu zaizkie beti». Horrek eta mobilizazioetan gehien ahalegindu ziren sektoreen ondorez —Benegasek berak ohartarazi bezala, amnistia «gehien errebindikatu zuten sektoreak, hain zuzen ere,

agertu ziren [46/1977] Legearen kontra, askiez iritzirik»⁵³ aldaketa horrek zer muga izan zituen kausitzen laguntzen digute. Baita handik aitzina Espainiako demokrazia parlamentario jaioberriak nolako arazoei buru egin beharko zien iradoki ere.

Aipatu bibliografia

- Aibar, M. (1981): *Le mouvement ouvrier en Guipuzcoa pendant le franquisme*, Université de Pau, Pau, doktoretza-tesia, 2 liburuki.
- Andrés, J. de eta Maisuetxe, J. A. (1980): *El movimiento ciudadano en Euskadi*, Txertoa, Donostia.
- Balfour, S. (1989): *Dictatorship, Workers and the City. Labour in Greater Barcelona since 1939*, Clarendon Press, Oxford.
- Castells Arteche, M. (1977): *Los procesos políticos. (De la cárcel a la amnistía)*, Fundamentos, Madril.
- Colomer, J. M. (1988): *La transición a la democracia: el modelo español*, Anagrama, Bartzelona.
- Domènech, X. (2002): *Quan el carrer va deixar de ser seu. Moviment obrer, societat civil i canvi polític. Sabadell (1966-1976)*, Publicacions de l'Abadia de Montserrat, Bartzelona.
- , (2008): *Clase obrera, antifranquismo y cambio político. Pequeños grandes cambios, 1956-1969*, Los Libros de la Catarata, Madril.
- , (2012): *Cambio político y movimiento obrero bajo el franquismo. Lucha de clases, dictadura y democracia (1939-1977)*, Icaria, Bartzelona.
- Gallego, F. (2008): *El mito de la transición. La crisis del franquismo y los orígenes de la democracia (1973-1977)*, Crítica, Bartzelona.
- Gasteiz [X. Sánchez Erauskinen goitizena] (1976): *Vitoria. De la huelga a la matanza*, Ruedo Ibérico, Paris.
- Ibarra, P. (1987): *El movimiento obrero en Vizcaya: 1967-1977. Ideología, organización y conflictividad*, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Iriarte, J. V. (1995): *Movimiento obrero en Navarra (1967-1977). Organización y conflictividad*, Gobierno de Navarra, Iruñea.
- Iriarte Bikila, J. (1999): *Borrokaren gorrian*, Txalaparta, Tafalla.
- Juliá, S. (1990): «Obreros y sacerdotes: cultura democrática y movimientos sociales de oposición», in J. Tusell; A. Alted eta A. Mateos (arg.), *La oposición al régimen de Franco*, UNED, Madril.
- , (2006): «En torno a los proyectos de Transición y sus imprevistos resultados», in C. Molinero (arg.): *La Transición, treinta años después*, Península, Bartzelona.
- Letamendia, Fr. (1979): *El no vasco a la reforma. La consolidación de la reforma*, Txertoa, Donostia.
- Marín Arce, J. M. (2006): «Condicionantes económicos y sociales de la Transición», in C. Molinero (arg.), *La Transición, treinta años después*, Península, Bartzelona.
- Molinero, C. eta Ysàs, P. (1998): *Productores disciplinados y minorías subversivas. Clase obrera y conflictividad laboral en la España franquista*, Siglo XXI, Madril.
- Noticias del País Vasco (1975): *Euskadi: el último estado de excepción de Franco*, Ruedo Ibérico, Paris.

53. José M.^a Benegas, «Estrategia política para Euskadi», 1978-10-17, GC/SG: 975. k., 12. karp., AHPA.

- Pérez, J. A. (2001): *Los años del acero. La transformación del mundo laboral en el área industrial del Gran Bilbao [1958-1977]. Trabajadores, convenios y conflictos*, Biblioteca Nueva, Madril.
- Rodríguez Tejada, S. (2009): *Zonas de libertad. Dictadura franquista y movimiento estudiantil en la Universidad de Valencia*, Universitat de València, Valentzia, 2 liburuki.
- Sartorius, N. eta Sabio, A. (2007): *El final de la dictadura. La conquista de la democracia en España (noviembre de 1975 – junio de 1977)*, Temas de Hoy, Madril.
- Soto Carmona, Á. (2005): *¿Atado y bien atado? Institucionalización y crisis del franquismo*, Biblioteca Nueva, Madril.
- Tusell, J. (1991): *La Transición española a la democracia*, Historia 16, Madril, 2 liburuki.
- eta G. Queipo de Llano, G. (2003): *Tiempo de incertidumbre. Carlos Arias Navarro entre el franquismo y la Transición (1973-1976)*, Crítica, Bartzelona.
- Ysàs, P. (2004): *Disidencia y subversión. La lucha del régimen franquista por su supervivencia, 1960-1975*, Crítica, Bartzelona.

